

## ETXERIK EZ DUT

**NUN ?** Leku zabal batean.

**TALDEA ?** Talde osoa.

**JOKOA ?** Haurrak korruan dira, xutik.

Haur batek etxerik ez du eta korrutik kanpo dago. Beste haur bat hautatzen du eta bizkarra jotzen dio,

atean bezala. Biak elkarrik hasten dira:

- Bigarrenak lehenari, etxea uzten dio eta joaten da beste baten atera jotzera,

- Edo bigarrenak ez dio lehenari etxea utzi nahi. Orduan bi haurrak abiatzen dira lasterka:

bat, korru alde batetik, bestea, beste aldera. Itzuli osoa egiten duen lehena, etxea hartzen du; bat, korru alde batetik, bestea, beste aldera. Itzuli osoa egiten duen lehena, etxea hartzen du;

bestea aldiz, beste etxe baten bila joaten da.

|             | 1° URRATSA                             | 2° URRATSA                                     | 3° URRATSA   |
|-------------|--|--|--|
| ERRANALDIAK |  |  |  |
|             | A:” Tok, tok, tok”                     | A: “Tok, tok, tok”                             | A: “Tok, tok, tok”                                       |
|             | B:”Nor da hor?”                        | B: “ Nor da hor ?”                             | B: “Nor da hor?”   |
|             | A: “Ni naiz Jon,zure etxea behar dut!” | A: “Ni naiz Jon, etxerik ez dut, ideki ezazu!” | A:”Ni naiz Jon, etxerik ez dut. Atea idekitzen didazu ?” |
|             | B: “Sar zaitte!”                       | B: “Bai, sar zaitte!”                          | B: “ Bai, sar zaitte!”                                   |
|             | Edo “Ez, nerea da!”                    | Edo-“Ez dut nahi, nere etxea da!”              | Edo –“Ez, ez dizut idekitzen, nere etxea da!”            |